Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Aitor Estebanen hitzaldia
Eibar. 2026.11.21

Arratsalde on, Eibar! Arratsalde on alderdikideok eta lagunok.

Eibarrera natorren bakoitzean mitina prestatzea atsegin jat. Zergaitik? Hemen ez dalako buelta gehiegi emon behar alkar ulertzeko. Hemen gauzak argi esaten diralako. Eta zerbait egin behar denean, egin egiten da. Hiri honek badaki zer den lan egitea, enpresak sortzea, zailtasunak gainditzea eta berriro hastea. Eibarrek historia du. Nortasun indartsua du. Eta badu are gehiago gustatzen zaidan zerbait: etorkizuna eta gogoa. Izan ere, hiri bat ez da lehengotik bakarrik bizi: protagonista izaten jarraitzeko duen gogoaz bizi da. Eta hori da, Eibar, zuen indarra! Jendea, nortasuna eta aurrera egiteko gogoa! Gora eibar!

Azken aste hauetan telebista piztu eta badirudi politika bi kutxa itxiren artean aukeratzea dala. Edo hemen zaude, edo han zaude. Edo gutarrena zara, edo besteena. Edo nirekin, edo nire aurka! Noiztik gara hain sinpleak? Noiztik sartzen dira osorik pertsona, gizarte edo herri bat Madrilen erabakitako etiketa baten barruan? Ezagutzen dut industria sendoa baina baita babes sozial sendoa nahi duen jendea. Segurtasuna eta askatasuna nahi dituen jendea. Bere sustraiak defendatzen dituen eta munduari beldurrik gabe begiratzen dion jendea.

Eta ez dago kontraesanik. Kontraesana politika osoa Sánchezera edo Feijóora, ezkerrera edo eskuinera, bloke batera edo bestera murriztu nahi dutenengan dago, Euskadik ahotsik, interesik eta berezko lehentasunik ez baleu bezala. Bizitza, bi blokeren arteko borroka baino aberatsagoa da. Eta Euskadi ere bai. Euskadi ez dago batzuei men egiteko, ezta besteei jarraitzeko ere.

Euskadik bere agenda defendatu behar du, bere erabakiak hartu eta herri honekin bakarrik konprometitutako ahots aske, indartsuren bitartez entzunarazia izan behar du. Eta hori da EAJk egiten duena! Euskadiren ahotsa Madrilera eraman egunero, osoko bilkura bakoitzean, lan-bilera bakoitzean eta negoziazio guztietan!

El otro día vimos al Partido Popular posar delante de una bandera que pretendía ser una ikurriña, pero que ni siquiera estaba bien hecha. Alguno dirá que es un simple error. Pero quizá el problema sea ese: que para algunos la ikurriña es solo un decorado que colocan deprisa cuando llegan las elecciones. Para nosotros, no. Lo dije en Irún y lo repito hoy en Eibar. La ikurriña es la bandera de nuestras casas, de nuestras fiestas y de plazas como esta. Es nuestra historia, nuestra lengua, nuestra cultura y nuestra manera de estar en el mundo. Es la bandera que recibimos de quienes estuvieron antes y que entregaremos a quienes vengan después. ¡Eso somos nosotros! No somos una sucursal ni una pieza en el tablero de nadie. Somos Euskadi: un Pueblo con identidad, con voz

propia y con la ambición de construir su futuro. Por eso, cuando llegue el momento de decidir, hacedlo desde lo que sois. ¡Desde lo que somos! ¡Vota Euskadi!

Feijóo estuvo aquí, en Eibar, hace unos días. Inicialmente, ni siquiera tenía previsto venir a Gipuzkoa. No lo olvidemos: el PP ha renunciado a presentar candidatura al Senado por Gipuzkoa para apoyar a Vox. Su partido quiere quitar los pinganillos para escuchar euskera en el Congreso, no apoya su oficialidad en Europa y se opone a avanzar en nuestro autogobierno. ¿Y qué perdió Feijóo en Eibar? ¡Nada! Los perdidos son ellos. El P-P: Partido - Perdido. Vino con la agenda de Madrid bajo del brazo. Y de Euskadi, como en el debate, ni una página: cero.

Y Pedro Sánchez también tiene que dar explicaciones. Esta ha sido la legislatura de Ábalos en el Grupo Mixto, de Santos Cerdán en prisión provisional y de un Gobierno que no ha conseguido aprobar nuevos presupuestos. En el debate con Feijóo escuchamos muchos reproches, muchas excusas y pocas respuestas sobre el futuro. Porque gobernar no consiste en ir apagando un escándalo detrás de otro. Consiste en tener un proyecto, construir acuerdos y dar soluciones.

Sánchez ha estado más ocupado en sobrevivir que en gobernar. Ni Sánchez ni Feijóo! Ya está bien de sus peleas por el poder. Menos pensar en quién manda en Madrid y más respuestas a los problemas de la ciudadanía!

Durante esta campaña estamos hablando mucho de nuestra Casa Vasca. Porque cuando hablamos de casa, todos entendemos de qué estamos hablando. La casa es el lugar al que vuelves. Donde están tus recuerdos. Donde has celebrado buenas noticias y donde también has pasado momentos difíciles. Donde has aprendido muchas de las cosas importantes de la vida. Pero una casa también es un proyecto. Se arregla, se mejora, se amplía cuando hace falta. Y, sobre todo, se prepara para quienes vienen detrás. Pues con Euskadi pasa algo parecido.

Tenemos una historia extraordinaria. Hemos construido muchas cosas juntos. Tenemos instituciones, autogobierno, empresas, servicios públicos, cultura, lengua y una sociedad llena de talento. Y todavía tenemos muchísimo por hacer. No se trata de vivir contemplando lo que ya hemos construido. Se trata de imaginar todo lo que todavía podemos construir. Y por eso hemos utilizado también la imagen de un seguro para nuestra Casa Vasca. Porque ahora más que nunca tenemos que cuidarla y protegerla. Cuando cuidamos una casa, pensamos tanto en el presente como en el futuro. Pensamos en el trabajo que permite mantenerla, en el bienestar de quienes viven dentro, en la tranquilidad de nuestras familias y en las oportunidades de quienes empiezan su vida. Y pensamos en sus cimientos.

En Euskadi, uno de esos cimientos es nuestro autogobierno. Porque nos permite tomar decisiones propias, asumir responsabilidades y construir respuestas adaptadas a nuestra realidad. Porque, ¿quién va a tomar mejores decisiones que quien conoce cada rincón de la casa? ¿En quién vamos a confiar para defenderla, protegerla y cuidarla? ¿Y quién queremos que siga construyéndola? Está en juego nuestro presente y nuestro futuro y ahí vamos a estar para proteger nuestra casa. Hoy y siempre.

Jakina axola duela Madrilen gertatzen denak. Hoba ez. Kongresuko erabakiek gure enpresei, gure enpleguei, pentsioei, etxebizitzari eta gure autogobernuari eragiten diete. Eta horrexegatik da hain garrantzitsua Euskadik Madrilen ahots propioa izatea. Euskal Taldea egotea, herri honen ardurak plazaratzen, zuen interesak eta agenda defendatzen.

Baina bada inoiz galdu behar ez duguna: eztabaida propioak izateko gaitasuna. Gure arazoez, gure aukerez eta herri gisa lortu nahi dugunaz hitz egitea baina gure lehentasunak zehaztu eztabaida bakoitza Madrilen gertatzen ari denaren kopia bihurtu gabe. Euskadik baditu berezko erronkak, bere asmo propioak eta bere agenda politikoa.

Eta ahots propioa izateak ez du esan nahi besteek baino ozenago hitz egiteak. Zer nahi dugun jakitea, argi defendatzea eta hori lortzeko gaitasuna izatea esan nahi du.

Argi izan: PP eta PSOE ez dira gure Herriaz arduratzen. Kanpaina hontan Euskaditik pasa dira, baina ez dira gure errealitateaz, ardura zaizuenaz jabetzen; Madrilgo agendarekin datoz eta.

Feijóo, gainera, hemen bertan egon zen, Eibarren, baina badakigu ondo zenbat axola zaion Gipuzkoa eta zenbat axola zaion euskera. Kongresuan erabili ahal izatearen kontra daude eta ez dute babesten euskera Europan ofiziala izan dadin; beste hainbeste gure autogobernua babesteko orduan.

Eta Sánchezek azalpen asko eman behar ditu oraindik. Ez dezagun ahaztu legealdi hau Ábalosena, Cerdánena, Koldorena edo Leirerena izan dela. Aurrekonturik aprobatzea lortu ez duela eta agenda eta proiekturik gabeko Gobernua izan dela, piztu zaizkion sute guztiak itzaltzen igaro duela bere legealdi osoa.

Beraz, ez Sánchez ezta Feijóo ere. Moncloa besterik ez zaie inporta. Alde batera uzten dituzte herriaren ardurak boterea lortzearekin itxututa daudelako. Gu, ordea, Madrilera goaz baina oinak, burua eta bihotza Euskadin dauzkagu! Joan eta etorri egiten gara!

Y quiero terminar volviendo a Eibar. A esa manera de entender la vida que combina trabajo, iniciativa, orgullo y ganas de salir adelante. Aquí sabéis que las cosas importantes no aparecen hechas de la noche a la mañana. Se construyen. Con esfuerzo. Con ideas. Con colaboración. Con gente que se implica. Y así se construye también un país. Con personas que participan, que se interesan, que preguntan, que discrepan y que toman sus propias decisiones.

Defendemos EUSKADI Zaindu

2026KO HAUTESKUNDE OROKORRAK
ELECCIONES GENERALES 2026

Dentro de unos días tendremos una nueva oportunidad de ejercer esa libertad. Hay que votar pensando que Euskadi se juega su futuro. Euskadi se juega su futuro el 29 de noviembre.

Decidimos qué Euskadi queremos. No nos jugamos quien gobierna España. Nos jugamos como se enfrenta Euskadi a la política del estado. Quien defiende Euskadi. Qué voz queremos tener en Madrid. Y por eso tenemos que tener un Grupo Vasco fuerte, porque es la voz de Euskadi. Y esa decisión es nuestra. Vuestra. De nadie más.

Que nadie nos diga lo que tenemos que votar, lo que tenemos que pensar, lo que tenemos que sentir o lo que tenemos que ser. Que nadie nos quiera meter en bloques que no son nuestros. Somos Euskadi. Y vamos a defender lo que somos. Gobierne quien gobierne.

Vota seguro. Vota por ti. Vota por lo tu que eres. Vota Euskadi. No votes contra nadie.

¡Vota Euskadi!

¡Vota EAJ-PNV!

Gora Euskadi Askatuta!